

Ibañetako begiratokia

N-135 errepidea, KP: 49,000



Gunearen deskribapena

Luzaide ibaiak izen bereko herrira bidean osatzen duen ibarraren begiratoki ikusgarria. Bereziki aipagarria da segur aski hegazti migratzaileen pasabide handieneko lepoa dela eta, gainera, pasagune historikoa ere bada, bertatik igarotzen baita Donejakue Bidea. Badirudi, halaber, bertan gertatu zela Errolanen kantorean edo "Chanson de Roland" delakoan kontatutako gudu historikoa. Errolanen estatuaren bat ere bada bertan, haren omenez.